

4) **DIRU SARRERAK**

Gure sarrera-iturri nagusia atzerrira ikastera joango diren pertsonen egindako ordainketak izango dira. Eskaintzen ditugun aukeren arabera, bezeroei diru kopuru desberdina kobratuko diegu eta horrenbestez, gure irabaziak ere aldatuko dira. Prezioak hilabete eta helmugaren arabera finkatu ditugu.



Lau tarifa mota eskaintzen ditugu

- Bi asteko egonaldia
- Hiru hilabeteko egonaldia
- Hilabeteko egonaldia
- Ikasturte osoko egonaldia

Zenbat eta luzeagoa izan egonaldia atzerrian, orduan eta altuagoak izango dira bidaiaren kostuak eta gure diru sarrerak. Aldiz, egonaldia laburragoa bada, kostu eta irabaziak txikiagoak dira.

Ordainketak egiteko, lau metodo desberdin daude:

- Txartelaren bidez
- Bizum bidez
- Banku transferentzia bidez
- Diru fisikoarekin

Familieei ordainketak egin ahal izateko, aukera desberdinak emango dizkiegu:

- Ordainketa aldi batean egitea
- Epe desberdinetako ordainketak:
 - Bi epe (%50a ordainketa bakoitzean)
 - Hiru epe (%33,33a ordainketa bakoitzean)
 - Lau epe (%25a ordainketa bakoitzean)

Azkenik, prezio dinamikoak ezarriko ditugu; hau da, prezioa merkatuko eskari, eskaintza, eta hornitzaileek ezartzen dizkiguten prezioen arabera aldatuko dira.